

## MOZIOA

### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI AIREPORTUKO ERREPIDEKO BIDEGORRI ZATIA EGIN DEZALA ESKATZEKO PROPOSAMENA**

2013ko ekainean Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana onartu zuten Batzar Nagusiek, zazpi urte iraun zuen aurrerapen, behin-behineko eta behin betiko faseak gainditu ondoren. Arloko Plan horrek Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea zehazten du. Herri arteko motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko azpiegituren sarea da, Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatuko dituen, beren herri nagusienak lotuz, eta inguruko lurraldeekin loturak ezarriz.

Bere helburu nagusia hiribarneko eta hiri inguruko eguneroko bizikletariei zerbitzua ematea da, joan-etorrietarako nahiz aisialdi edo turismorako bizikleta erabiltzen dutenei. Oinezkoen aisialdirako aukerak ere ematen die, batera erabiltzeko eta banantzeko hainbat soluzio emanda.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare hori hainbat ibilbideetan banatzen da. Lehenengo ibilbidea da hain zuzen Hondarribiari eragiten diona. Donostia eta Irun arteko ibilbidea da, eta hainbat adar ditu, horien artean Irun eta Hondarribia lotzen dituen adarra.

Orain urte batzuk Sareko lehen ibilbidearen Hondarribiko zatiko tarte bat gauzatu zuen Foru Aldundiak, hain zuzen ere, Jaitzubiko zatia, Amuteraino iristen dena. Horren jarraipena, baina, 01014F deritzon zatia, Amute eta San Juan de Dios biribilgunearen artekoa, egin gabe dago. Tarte horren zati txiki bat dago burutua, San Juan de Dios eta Gabarrarira sartzeko biribilgunearen artekoa, baina tarterik luzeen eta garrantzitsuena, Amutetik Gabarrariko biribilgunera artekoa, hori falta da.

Zati hori gauzatu balitz, onura handia izango litzateke Hondarribirentzat, hainbat arrazoiengatik:

- Erosotasun aldetik, Amute eta hirigunea arteko lotura asko hobetuko luke, bai bizikleta zaleentzako, baita oinezkoentzako ere. Egungo aukerak (Kostako bidegorria edota espaloia, errepide ondoko asfaltozko bidea) ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen, batez ere zabalera aldetik.
- Segurtasun aldetik, bizikleta zaleen, oinezkoen eta motordun ibilgailuen segurtasuna asko

-  
handituko luke, erabiltzaile bakoitzari bere bidea segurtasunez egiteko aukera emango liokeelako, besteen konprometitu gabe.

- Hirigintza aldetik, Kosta kaleari arnasa emango lioke, Kosta kalearen erabiltzaile kopurua murriztuko lukeelako, batez ere bizikletena, baina baita oinezkoena ere.
- Planeamendu aldetik, Mugikortasun Planari eta HAPOri ere mesede egingo lieke. Aldundiak egiteke duen bidegorri-sarearen zati hori gauzatuko balu, Mugikortasun Planaren eta HAPOren barruko mugikortasun helburuek bultzada handia jasoko lukete.

**Hori guztia kontuan izanik, Abotsanitz Udal Taldeak honakoa eskatzen dio Hondarribiko Udalbatzari:**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari eskatu diezaiola Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko Hondarribiko zatia burutzeko falta den tartea -Amute eta Gabarrariko biribilgunearen artekoa- osatu dezan.

Hondarribia, 2021eko Abenduak 13

Abotsanitz Udal Taldea